

“PINTXO OSASUNGARRIEN” EDIRENEN I. LEHIAKETA

Osasunari eta bizimoduari buruzko XII. Jardunaldiak

2018ko irailaren 28a

OINARRIAK

LEHENENGOA – Xedea

Elikadura osasungarri batek pertsonen osasunean duen garrantzia, sormenak eta adin guztietako norbanakoen partaidetza sustatzeko asmoz, Pintxo osasungarrien Edirenen I. lehiaketa antolatu dugu.

BIGARRENA – Partaideak

Interesa duen edonork parte hartu dezake lehiaketan.

HIRUGARRENA – Izen-emateak

Irailaren 5a eta 25a bitartean izena eman ahal izango da EDIREN osasun kooperatibaren egoitzan (ordutegia: 9:00–13:30 eta 16:00–19:30), dagokion inprimakia betez. Halaber, izen-emate orria hurrengo helbidean eskuratu daiteke: www.ediren.com/blog. Osatu eta gero, kooperatiba@ediren.com helbidera bidali beharko da. Izen-ematea dohainik da.

LAUGARRENA – Non ospatuko da lehiaketa

Vitoria – Gasteizeko Judimendi parkean izango da lehiaketa, Zabaltegi tabernaren terrazan.

BOSGARRENA – Data eta ordutegia

Txapelketa **2018ko irailaren 28an, ostiralean**, ospatuko da.

- **19:30ean**, lehiatuko diren pintxo harrera.
- 19:45ean, epaimahaiak pintxoak dastatuko ditu.
- 20:00etan, sari banaketa.

SEIGARRENA – Zein pintxo den zeinena eta aurkezpena

Partaide bakoitzak **gehienez 2 pintxo ezberdin** aurkeztu ahal izango ditu, osagai naturalak erabiliz. Pintxo mota bakoitzeko **5 ale** aurkeztu beharko ditu. Hurrengo osagaiak erabiltzea gomendatzen dugu: ogiak, barazkiak, frutak, esnekiak, arrautzak, fruitu lehorrak, oliba olioak, gatz gutxi...

Pintxoak dastatzeko prest eta kontsumitzeko egoera ezin hobean aurkeztuko dira.

EDIRENek aukeratutako pertsoneri eman beharko zaizkie pintxoak 19:30etan, puntu-puntu, horiek jaso eta Zabaltegi tabernaren terrazan dagokien mahaian ipintzeko.

Pintxo bakoitzarekin, partaideak bere datuak gutun itxi baten barruan aurkeztuko ditu.

Lehiaketan parte hartuko duten pintxoak iristen diren ordenan eskainiko zaizkie EDIRENek egun berdinean antolatu duen ginkanako partaideei, izena ematean jasoko duten txartelaren bitartez.

ZAZPIGARRENA – Epaimahaia

Hiru pertsonak osatuko dute epaimahaia:

- Egun hartan Judimendi parkean ospatuko diren jokoetan izena ematen duen lehenengo pertsona, lehiaketaren momentuan libre eta prest dagoen heinean.
- Carlos Antolín – Kotarro jatetxeko ostalaria.
- Yolanda Valle – EDIRENeko osteopata eta fisioterapeuta.

Epaimahaiak 1 eta 10 bitarteko puntuazioa emango die pintxoei, hurrengo irizpideen arabera:

- Zaporea.
- Aurkezpena.
- Originaltasuna.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

ZORTZIGARRENA – Sariak

Hurrengo sariak emango dira:

- **1. saria**, “EDIREN PINTXOA”: Kotarro jatetxean bi pertsonentzako afaria.
- **2. saria**, “OSASUN PINTXOA”: EDIREN fisioterapia tratamendu baterako txartela.
- **Gainontzeko partaideei**: antolakuntzak, lehiaketako partaide guztiei “ZABALTEGI TXARTEL” bat emango die —Zabaltegi tabernan, Judimendi parkean, kontsumizio baten truke aldatu ahal izango dena—, haiek egin ez duten lehiaketako pintxoetako batez gain.

Sari banaketa lehiaketa ospatuko den egun eta leku berebean izango da, 20:00etan.

BEDERATZIGARRENA – Parte hartzeko baldintzak

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla eta, bertan aurreikusi ez diren kasuetarako, Antolakuntza edota Epaimahaiak hartutako erabakiak errespetatuko direla.

Era berean, antolakuntzari nahi adina argazki egiteko eta, saritutako pintxoan errezetekin batera, horiek argitaratzeko baimena ematen zaio.